

atsoak hor jarraitzen du



UXUE ALBERDI

UXUE ALBERDI

atsoak hor jarraitzen du

Bertsosorta

eta Mariasun Monzon-en artikulua:

azkenetan den mundu baten kronikari

Itzultzaileak:

Juan Luiz Zabala

Unai Begiristain



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

Atsoak hor jarraitzen du

Harria eta herria,
aldaka eta gerria:
gezur-haragizkoa da
andrearen aberria.

Errekastoen marmarra:
alarguna, neskazarra...
ez zaude salbu (e)ta, halere,
nork moztu dizu bizarra?

Bezaturiko otsoa,
ate aurrean atsoa,
uluak ito dituen
basapiztia mantsoa.

Usoak sarean usu,
askatasuna, ze luxu!
Zuk zaintzen duzu etxea?
Etxeak zaintzen zaitu zu?

Ibarretako gandua,
zapian pentsamendua;
distira eginagatik
itzalpera bakandua.

Euri-laino deseginak
buruko adats urdinak,
derrigor idortu ditu
aske eraman ezinak.

Txori beltzen pausatoki:
zimurturiko bekoki,
ez duzu ezer esaten,
gehienera, iradoki.

Zula ta zula okilak,
begiak, kanika hilak...
Behinola leihoak ziren,
orain, leihoen fosilak.

Neguan mutu txepetxa,
eztarrian zulo beltza...
Izua jan duenari
amildegi zaio ertza.

Ihiak urak etzanda,
okotzak ia eztanda...
Eskuaz igurtzi duzun
instante hortan izan da.

Mendizerran dena malda,
eroririko sorbalda...
Etxeko teilatuaren
pisuarengatik al da?

Zaurituriko orkatza,
lepo-zapian orratza
atarira mugatzen da
historiaren lorratza.

Zorupeko ur xirripa,
zapipean bi birika,
Hartzen duten arnasaren
erdia bota ezinta.

Sutarako gaztainondo
erpinduriko ukondo...
Argazkirako ez bazen
ez ziren geldi egongo.

Arrastiriko beltzuri,
besaurrerik ezin mugi:
atearen maratilak
lotzen duela dirudi.

Aihen landare estuak,
gerrian tinko eskuak...
“Hemen nago” esan nahiak,
eta ezin sinestuak...

Isil-misilka satorra,
gona, zapia, atorra...
elkartzen diren puntua:
historiaren zilborra.

Baso itxian hostotsa,
Amantal azpian, hotza...
Geldirik egon ezina
eta mugitzeko lotsa.

Hortzik gabeko zakurra:
ezpain ertzean adurra.
Gonapean biak daude:
desira eta beldurra.

Kuku-arrautzak kabitan...
Musuzapia patrikan
nork jartzen ditu malkoak
besteren bihotz-begitan?

Tximeleta gris berezi,
beharturiko mimesi...
la gona ta atea
ezin baitira bereizi.

Harizti zaharreko sute,
abarketako larrupe...
Ez ziren kabitzen ala
oinak moztu dizkizute?

Dena txarrantxadun hesi...
Baina ez al du merezi?
altxa gonak eta zoaz
erretratutik ihesi!

Gaua zuloen ukendu
begi itxiak mantendu...
Esnatu naizen unean
atsoak hor jarraitzen du.

Azkenetan den mundu baten kronikari

Mariasun Monzon

7K Aldizkarian argitaratutako artikulua.


Egileari eta argitaratzaileei eskerrak eman nahi dizkiegu hemen plazaratzeko baimena emateagatik.

Itzultzaileak: **Juan Luiz Zabala** eta **Unai Begiristain**

Euskal Herriko lehen emakume argazkilaritzat hartu izan dute Eulalia Abaitua. Ehunka erretratu egin zituen XIX. mendeko azken hamarkadetan eta XX. mendeko lehendabizikoetan. Bere ustean onenak emanda zegoen mundu bati atera zizkion argazkiak; gizon-emakume anonimoak betikotu zituen, enkoadratzearen arauak hautsi eta argazkilaritza-industriaren azken berrikuntzen aldeko apustua egin zuen.

Eulalia Abaitua (1853-1943) erabat ezezaguna zen 1990era arte. Urte hartan, Bilboko Euskal Museoak egindako erakusketa batean euskal ondarearen galdutako altxorretako bat eman zuten argitara. «Gure aurreko andrak» izeneko erakusketa hartan, XIX. mendearen erdialdean jaiotako emakume bilbotar honen lanaren zati bat erakutsi zuten. Inguruko landa- eta hiri-giroaren argazkiak egin zituen Abaituak, eta, Alberto Shommer argazkilariaren hitzetan, «egun [1990] Magnum agentziako argazkilari bikaina» izango litzateke. Desagertzeko zorian zen mundu bat betikotu zuen, bere begi aztiarekin bide egin eta eguneroko bizimoduko pertsonen argazkiak egin zituen, eguneroko jardunetan edo aisialdiaz

gozaten ari zirela. Tuntu handiz aukeratu zituen argazkietako gaiak, pertsona umilak, ukiturik batere gabe. Gaur, Euskal Herriko lehendabiziko emakume argazkilaritzat daukagu.



Eulalia Abaituaren artxiboak Bilboko Euskal Museoaren esku utzi zituzten haren ondorengoek. Hainbat entrega egin zituzten: lehendabizikoa 1986an, argazkilaria hil eta 43 urtera. Maite Jiménez Ochoa de Aldak, museoko teknikariak eta *La fotógrafa Eulalia Abaitua* liburuaren egileak, eskerrak ematen ditu Abaituaren sendiak bazekielako «zer nolako balioa» zuten argazki haiek, gerrate bat eta hainbat joan-etorri gainditu zituzten argazkiz betetako kaxa haiek. «Askotan zera galdetzen diot neure buruari, nola lortu ote duten gure egunetara arte irautea. Izan ere, gerra bat igaro dute, eta gerra-garaian zer eramango genuke aldean?», hausnartzen du. Artxibo horiek ez zeukaten paperezko irudirik, baizik eta kristal negatiboak, beirak, plakak... Eta guztiak ere gorde beharreko objektu garrantzitsutzat jo zituzten 1936an gerra hasi zen garaian. Artxibo horiek etxe etxe batetik bestera egindako bideak eta egilearen beraren heriotza gainditu izanak zera erakusten du, Jiménezzen ustean, «inolako zalantzarik gabe sekulako maitasuna» ziotela ondare hari, eta ondorengoek ere ederki zekitela «zer nolako altxorra» zuten esku artean.



Bilbo-Liverpool-Bilbo. Eulalia Abaitua Allende-Salazar 1853an jaio zen Bilboko Zazpi Kaleetan, familia burges batean. Aitaren aldeko aitona *Salesia* eta *Asunción* korbeten armadore izan zen, Erripan eraikiak 1856an; amaren aldeko aitona, berriz, gernikarra, Bizkaiko ahaldun nagusi izan zen, eta, ondoren, foru-azietarako kontsulta-batzordeko kide. Aita, berriz, «zaldun, ondasun-jabe eta merkatarari» gisa ageri da erregistro guztietan. Eulalia gaztea, bere neba bezala, inude batek hazi zuen, ama Eulalia jaio eta hilabetera hil baitzen; Bartzelonako

ikastetxe batean ikasi zuen, Jesusen Bihotzaren kongregazioak garai hartan zuen bakarrean, eta 1871n Liverpool aldera joan zen bizitzera, sendiarekin batera. Handik gutxira, hemeretzi urte zituela, Juan Narciso Olano ingeniari zibilarekin ezkondu zen, abaituatarrengandik oso gertuko gizona.

XIX. mendeko 70eko hamarkadan, argazkigintza pil-pilean zegoen Ingalaterran. Hamarraldi horreketan eta Liverpoolen, hain justu, hasi ziren fabrikatzen gelatino-bromurozko lehendabiziko xafiak. Ordurako, David Brewster jaunak Edinburgon egindako ikerketek eta Jules Duboscq frantsesak Parisen egindakoek kamera esteroskopikoak edo 3D kamerak sortzeko bidea eginda zeukaten, baita haietatik sortutako argazkiak ikusteko aparailuak ere. Eta testuinguru horretantxe izan zuen Eulalia Abaitua gazteak lehendabiziko harremana bere pasio bilakatuko zen harekin; argazkigintzarekin, alegia.

Garai hartako dama hura, gizon sonatu baten emaztea, ama, sinestuna... gizartearen maila gorenean zegoen emakume hura argazkigintzara zerk bultzatu ote zuen bila hastea, inondik ere, espekulazioan erortzea da, ez baitago auzi horri buruzko inolako lekukotza idatzirik. Maite Jiménez-en aburuz, Liverpoolen emandako urteak erabakigarriak izan ziren, eta, ziurrenik, Julia Margaret Cameron-en eragina izan zuen; egile haren obrak maiz erakusten ziren egun British Museum den gunean, garai hartan argazkigintzan buru-belarri jardun baitzuen zentro hark. «Eulalia Abaituak txiki-txikitatik ikusi zuen argazkigintza zer zen, haren erretratu asko baitauzkagu gordeta sei, zortzi, hamalau... urterekin. Argazkigintza pil-pilean zen urteetan bizi izan zen Ingalaterran. Baina, horrez gain –adierazten du Euskal Museoko teknikariak–, zerbaitek irten behar zion barru-barrutik, “neuk ere egin dezaket” esateko». «Julia Margaret Cameronen obrak eragin ziola bururatzen zait niri, besterik ez», amaitzen du, gogorarazita hipotesi hutsa baino ez dela.

Euskal Herrira bueltan, 1878 aldera, Olano-Abaitua senar-emazteak Begoñako elizatean instalatu ziren –Begoñak ondoren Bilborekin bat egin zuen 1925ean–. Hantxe altxatu zuten euren bizitokia, Pino jauregia izenez ezagutzen den estilo ingeleseko jauregia; garai hartako Bilboko eta Bizkaiko pertsonaiarik garrantzitsuenak igaro ziren etxe hartatik. Begoñako basilikaren inguruan egoteak, halaber, erreferentzia-gune bilakatzen zuen goi-mailako erlijio-agintarien begietarako ere; hala erakusten dute Abaituak berak Begoñako Andre Mariaren koroatze egunean, 1900 inguruan, hartutako argazkiek (haietako batean, Aita Santuak bidalitako ordezkaria ikus daiteke, euren etxeke egongelan).



Era berean, Pino jauregian bertan egin zituen bere bizitza pribatuari buruzko erretratu gehienak ere. Argazki intimistak dira, eta senarra, alabak eta bilobak dituzte protagonista. Familia-intimitateko argazki ugariren barruan agertzen dira, era berean, etxeko langileak (inudeak, umezainak, dontzeilak, lorezainak, sukaldariak...) eta bere neba Felipe eta koinata Ana –alboko etxean bizi zirenak, Olano-Abaitua sendiaren tankera bereko beste jauregi batean–. «Eulaliak eduki hori jorratu zuen, hainbat hartualdi eginda, barrukoak zein kanpokoak, etxeko fatxada hondo gisa hartuta, terrazako bankuetan eta mahaietan, baita belardietan ere. Guztietan, egun-argia du aliatu eta konplize», azaltzen du Maite Jiménezek Abaituaren liburu biografikoan.

Erretratuak, enkoadratze desberdina. Eulalia Abaituaren obrak bere eguneroko bizitzaren barrualdea erakusten digu, baina ez hori bakarrik, baita Bilboko hiri-bizitzaren eta Bizkaia barrualdeko landa-giroaren arteko aldea ere. Horrez gain, kaleko erreportari-lanak ez ezik, plano erdiko argazki «delikatuago» hori ere jorratzen du. «Kalitate handia ageri da haren obran, nahiz eta, pentsatzekoa den moduan, alde handia dagoen erreportari gisako argazkietan eta gainerakoetan», adierazi du Maite Jiménezek, zeinak haren lana lau atal handitan sailkatu baitu: familiako bizitza pribatua, landako eta hiriko mundua, bidaiak eta erretratuak.

Bilboko Euskal Museoak orain artean egin dituen sei erakusketetan –hilaren 28an inauguratuko du zazpigarrena– garbi geratu da argazkilari honek pertsonetikiko duen interesa. Abaituaren argazki-kamerak hiriko arkitektura edo paisaia jaso bazituen ere, haren egiazko *leitmotiva* toki haietan bizi ziren pertsonak izan ziren. Eta, agertoki horretan, erretratuak dira haren nortasun-zigilu, planteatzeko zuen modu berezi eta partikularragatik. «Garai hartako erretratugintzako profesionalek gehiegitxo eszenaratzen eta gainkargatzen zituzten, eta haien aldean, Eulalia Abaituaren lanak inguruan duen mundua artifiziorik gabe ikusteko

garbitasuna transmititzen du, beti giza elementua protagonista dela (...). Aurrez zehaztutako arau formalik gabeko enkoadratzeko modua ikus dezakegu», idatzi zuen Patxi Cobok «Iraganeko begiradak» erakusketaren katalogoan (Bilboko Euskal Museoa, 1998).




Baserritarrak, erromesak, beren produktuak saltzeko edo trukatzeko Pino jauregitik pasatzen ziren Santutxun kanpatutako ijitoak; emakumeak, emakume asko, bere etxeko atearen aurrean, jantzirik onenekin, belaunaldi bat baino gehiago argazki bakarrean, zaharrak, gazteak, bakarrik zein bikotean, aurrez aurre, albotik... Kanpoan egindako argazkiak dira, baina estudio batean eginak ere izan zitezkeenak, «zuk pertsona bat argazkia egiteko objektu gisa ikusi eta haren atzean, distrakzio oro saihesteko, oihal bat jartzen duzun unetik, zuk argazkian jaso nahi duzunari, pertsona horri, aurpegi horri, soslai horri, zapi horri, belarriari, dominari... buruzko zerbait zorrotza egiten ari baitzara. Nabarmendu, atzealdea uzten badiozu arreta galaraziko dizulako», Maite Jiménezek dioen bezala. «Batzuetan oihalik gabe bidaiatzen zuen –gehitzen du– eta orduan ere ikusten da distortsiorik ez egoteko ahalegina, bere nahiaren objektua, pertsona, benetan den bezala agertzeko ahalegina». Argazkiko pertsonaren atzealdean pareta ahalik eta neutroena ageri den argazki askotan begien bistakoa da ohartarazpen horrek dioena.

Bere garaiko erreportaria. «Emakume honek ez du arteagatiko artea bilatzen, ezta argi-jokoa eta konposizio korapilatsuak ere, benetako erreportaria da», idatzi zuen Alberto Schommerrek «Gure aurreko andrak» erakusketako katalogoan. Bilboko espazio urbanoak, Itsasadarraren bazterreko herriak, Armentia bailara, Begoñako elizatea, Lekeitio, Ondarroa, Txatxarramendi, Bermeo, Mundaka... Edozein agertoki edo pose interesgarri zitzaion giroa atzemateko.

Begoñako elizatean, bizilagunak eta une bakoitzeko gertakariak izan ziren haren «objektu mimatuak»; azken muturreraino inplikatu zen erreportari grafiko gisa eta atsedetik hartu gabe erretratatu zuen bere inguran gertatzen zen guztia: ospakizun zibil zein erlijiosoak, ganadu-feriak, dantzak, bazkariak, iturrietako ura,

bideetako ibiliak, ezteiak, prozesioak, erromesak eta (nola ez ba!) eguneroko bizitza. Horixe zuen inguru gertukoena eta ezagutzen zuen inguru horretako jendea; Tomasa eta Brígida, txokolatea boladuekin ematen zutenak *la Novenaren* etxean; pontxegilea, postua santutegiaren sarreran jartzen zuena; Rosario Arabiourrutia latsaria, Boni baserrikoa; Bernabé de Garamendi eskultorea, batzuetan solaskide izaten zuena; Matxarratia txakolindegikoak; Basilikako apaizak...

Baina Begoña «bere objektu mimatua» baldin bazen, Itsasadarra «oso barruan zeraman zerbait» zen. Itsasadarra eta itsasontziak, garraioaren eta merkantzien mugimendua, bainulariak, itsasoko prozesioak, estropadak, itsasontzien eraikuntza eta uretaratzeak, arrantzaleak eta itsasontziak portura iristen, sardina-saltzaileak, Zubi Esekia, Labe Garaiak... Bilbon, Sestaon, Portugaleten, Santurtzin, Areetan edo Algortan egindako argazkiak, «aurpegiak, lekuak eta gertakariak deuseztatuz, atzera begiratu eta bizitza erreparatzeko aukera ematen digutenak», Jiménezek dioenez. Hala ere, absentsia bat dago Itsasadarraren argazki horretan. Siderurgiako langileria falta da. Eulalia Abaituak Labe Garaien argazkiak egiten ditu, bai, baina bestaldetik, Ibaiaren Eskuinaldetik; ez da fabrika sartzen, 1900. urtean argazkilari batzuk sartu zirela egiaztatuta dagon arren. Zergatik?, galdetzen du bere artean Maite Jiménezek. «Ez dakigu», erantzuten dio bere buruari. «Nekazaritzaren beste mundu horretan sartzen da, batez ere amaitzen ikusten duen baserriaren munduan. Nik uste dut bera jabetuta dagoela mundu hori amaitzen ari dela, datorrena bestea baita, hain zuzen ere berak argazkirik egiten ez diona, industria, langile-mugimendua. Eta jabetzen da badela baserrietako jendea joaten ari dena, baserriak uzten ari dena fabrikara joateko...».



Emakumeak, protagonista handiak. Eulalia Abaitua ez da emakumeen argazkilaria. Haren kamerak jendearen bizitza jaso zuen, emakumeena zein gizonena. Arreta ematen du, hala ere, zenbat argazkitan emakumeek duten protagonismoak. Erretratuetan emakumeen presentzia hori nabarmena baldin bada, lan mundura hurbiltzen denean ezaugarri horri eusten dio. Ez du axola taldean egoteak; baserrian txorizoak egiten, lurra lantzen, idiekin; portuan, itsasontzien zain, Bilboko Erriberako merkatuan... Beti daude lehen planoan, presentzia hartzen dute, are gizonekin batera daudeneko lan mundu horretan ere.

Emakumeak lanean, etxekoa sustatzen edo soldatapean, hirian, itsasertzean edo landan. Sukaldean lan egin, irun, garbitu, josi, itsasontziak deskargatu, merkantziakoak zein arrantzakoak; ikatza kargatu, sareak konpondu, laiatu, segan egin..., eguneroko esfortzu gogorraz mintzo zaizkigun ezin konta ahala zeregin, batzuetan hala ere irriak marrazten direla. Posatzen ari ez diren irudi ugariak erakusten dute hori; hala ere, burua altxatu eta argazkilariari irribarre egiten diote. Arantza Parejak eta Karmele Zarragak, *Profesiones, oficios y tareas de las mujeres en Bizkaia* (2006) argitalpenean, Eulalia Abaitua «aitzindaritzat» jotzen dute arlo horretan, «zorrotasunez jasotzen baitu euskal emakumearen lan-mundua».

Testuinguru horretan, Maite Jiménezek nabarmentzen du, gainera, enpatia, konplizitatea eta argazkilariaren eta haren kamerak enfokatzen dituen emakumeen arteko elkar aditzea. «Argazki horiek ezer baldin badute komunean, generoaz gain, hori da argazkilariaren eta argazkian agertzen direnen artean arnasten den samurtasuna, enpatia eta komunikazioa», irakurtzen da Jiménezzen liburuan. «Kasu batzuetan, ikusten da unea atzematen duela, baina beste batzuetan esaten die: “gelditu une batez, mesedez”. Eta horixe egiten dute», gehitzen du.

Abaituaren «A» hizkiarekin. Abaitua Artxiboa, gaur egun Bilboko Euskal Museoaren zaintzapean, 2.500 baino gehiago beirazko plakak osatzen du, zuri-beltzeko estereoskopikoak gehienak; eta, Maite Jiménezzen arabera, haren lanaren funts nagusia 1895 eta 1910 artekoa da. «Garai horretan egin zuen lan plaka estereoskopikoekin. Beste formatu batzuetako lanak ere baditu, baina ez dut uste haren lanaren adierazgarri direnik. Ez dira Abaitua», dio. Hala ere, euskal museoko teknikariak Abaituak egindako koloretako 25 edo 30 plaka nabarmentzen ditu, justu Lumière anaiek koloretako argazkia sortu zuten garaian

eginak, XX. mendearen hasieran. «Badirudi jakin-min handiko emakumea zela; argazkigintzaren munduan gertatzen zenarekin kontaktuan zegoen, berrikuntzekin, mundu horretan pil-pilean zen guztiarekin».

Museoak hilaren 18an inauguratuko duen erakusketak Eulalia Abaituaren lan estereoskopioan sakontzen du, hain zuzen ere. «Estereoskopiak 16 + 16», zazpigarrena 1990eko «Gure aurreko andrak» hartaz geroztik, ohiko formatuak hausten dituen erakusketa da: 3Drako betaurrekoekin ikusi beharko da, eta gainera entzun ere bai. Hiru dimentsiotan egindako hamasei argazki biltzen ditu erakusketak, formatu anaglifokoak, horietako bakoitza euskal idazle emakumezko banak komentatua. Iragan bisuala ahozko orainarekin batzen duen erakusketa.

Argazkilari profesionala ez izan arren, pentsaezina baitzen hori haren garaiko Bilboko gizartean, Eulaliak sinatu egin zuen bere argazkilari lana. Eta abizenaren hasierako «A» hizkiarekin sinatu zuen, ez «Olano andre» gisa, ofizialki agertzen zen bezala. Ezustea berriro ere, eta berriro ere erantzunik gabeko galderak. «Akaso –iradokitzen du Maite Jiménezek–, “A” hori Ingalaterran bizi izan zen urteetan mugimendu sufragistaren oihartzunak sentitu zituen eta, garaiko gizarte-arauak onartu arren, argazkigintzaren eta sinadura pertsonalaren bidez zerbait gehiago –egokitu zitzaion garaia gaindituko zuen ezabatu ezinezko arrastoa uztea beharbada– bilatzen zuen emakume baten suspertze fina da».